



### **B) UDALEKO OSPAKIZUN NAGUSIA:**

Bertan izan zan Lore Jokoak gogora ekartzeko eta mendeurrena ospatzeko egintza nagusia. Egintzak berak honako atalok izan zituan: kanpotik etorritako agintari eta ordezkariak agurtzea eta euron erantzun-berbak, herriko "seme-kutun" izendatutakoei udalaren urrezko intsignia eta gomutagarriak banatzea, eta bertara etorrita guztiek Arrese ta Beitiaren ahapaldi bat abestuz euskarari eusteko asmo sendoa agertzea.

Alkake jaunak ospatzen genduan jaiaren laburpena egin euskun:  
*"Egun on, jaun-andreok.*

*Lehenengo eta behin, eskerrik asko guztioi etortzeagatik: agintariei, gonbidatuei, senideei eta hemen bildu zareten guztioi.*

Oparien eskaintza egin ostean, udal aretoan batutako guztiok batera, 1899ko Lore Jokoetan lehen saria lortu eban Felipe Arrese ta Beitiak egindako olerkiaren azken ahapaldia abestu genduan, aurrerantzean bere euskarari eusteko berbea emonaz. Negar-ttanttak bere ageri ziran diz-diz hainbaten begietan.



Omenduak alkatearekin batera opariak aurrean dituela. Plakako berbak:

*Aramaioko udala*

*Aramaioko udalbatzak 1998ko urriaren 14an  
honako hau erabaki zuen*

*.....(Bakoitzaren izen-deiturak).....*

*Aramaioko seme kutuna izendatzea*

*Lore Jokoen mendeurrenaren ospakizunarekin eta egun  
horretarako Bizente Goikoetxeak egin zuen meza  
berreskuratzearekin batera erabaki hau gauzatu dugu.*

*Aramaion, 1994ko irailaren 26an*

Euskara hutsezko giro horretan bizi izandakoak arduraz ikusi izan dogu Aramaioko euskararen ibilbidea. Batez bere eskolaren eraginez edota guraso ardurabako batzuen erruz umeen artean atzeraka hasi zanean. Horrek ekarri eban ahalegin handiak eginez ikastola martxan jarri eta urteetan zehar aurrera eroatea.



Aramaioko Ibarra 1930ean.

Geroago, eskoletan euskara normaltasunez erabilten hasi ostean, eta hainbatean Arrasateko fabrika eta ikastetxeetako euskal giroak bultzatuz, egoerak onera egin dauala ikusi izan dogu. SIADKOK egin barri dauan hizkuntz-azterketan pozik egoteko datuak ageri jakuz, ez, oster, lotan egotekoak, oraindino zer egin ugari daukagu eta. Aramaioko udala UEMAn sartzea bere aurrerabide izan daiteke euskara indartzeko.